



www.begiko.com

© Testua: 1999, IGOR ELORTZA

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-27-8

Lege-gordailua: M-16333-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

MARGOLANA

IGOR ELORTZA

begiko

*Aittitte Paulino barberueri,
umetan gaixotzen nintzenien
bere sasoiko kontuek
kontetiaittik*

*Hizketaldiak arriskutsuak dira beti,
zerbait isiltzen duenarentzat.*

Agatha Christie

Banekien

Gure etxeko balkoitik parez pare ikusten da institutua. Harexeri begira nago orain. Ordu hauetan ez da mugimendu handirik izaten, gaur bezala futboleak dabilzan batzuk eta besterik ezer gutxi. Aparkalekuan auto bat baino ez dago. Atzerago, trenbideko langileek bagoiak mantentzeko erabiltzen duten pabiloi laranja ikus daiteke eta, urrunago, etxebizitza garaiak. Goian, arratsaldeko zerua ilun dago, lainoturik. Han bukaeran, lerroa egiten duten mendi tontorrek elurturik daude. Ateri da. Urduri nago.

11

Duela hamabi ordu txirrinak jo duenean jakinaren gainean nengoen ni. Ondotxo nekien zer gerta zitekeen. Banekien. Gertatu behar zuena nola buka zitekeen, ez, ordea. Hori ez nekien. Baina bai, banekien zer gerta zitekeen. Bizkarra hormaren kontra etzanik, lo gutxi eginda eta ondoezak jota esnatu naiz txirrinak jo baino ordu erdi goizago. Gaur goizean, begiak zabaldu ditudanean, espero nuena ikusi dut. Institutuko liburutegia.

Beldurrak iratzarri nau. Giharrak luzatu eta leihotik begira gelditu naiz. Egunkari eta ogi banatzaileen fur-

gonetak lau keinukariak dardarka geldirik, auto ilarak semaforoetan eta lanera abiatu bide diren langileen ibilerara herrenak espaloietan. Ni institutuko liburutegiko leiho batetik begira.

12 Gaur, 2002ko apirilaren bigarren eguna omen da. Egun gogorra. Azken bi asteotan oso lo gutxi egin dut. Atzo eta gaur bereziki. Hondoak jota nago. Bederatzi ordu ilun eman ditut polizia etxean, eta polizia etxea ez da hamasei urteko mutil gazte batek bere lagun minenarekin egun pasa egitera joateko aukeratuko lukeen lekua.

Hemen kanpoan hotz egiten du. Futboleak ari zirenek baloia jaso eta txandal prakak jantzi dituzte. Etxera doaz. Iluntzen ari du. Gurasoak aitaren lehengusinarekin etxera joan dira. Haren senarra abokatua omen da. Nik nahiago izan dut etxean gelditu. Bakarrik egoteko beharra daukat. Etxean ere ez nago eroso. Ezin diot institutura begiratzeari utzi. Ganbarara noa.

Ganbararen sabaiko leihatila ireki eta ateko gilitza jaka bakeroaren poltsikora sartu dudanean, Lucky Strike batekin egin dut topo. Aurre-aurrean banu bezala ikusten dut polizia etxean galdekatu nauen bizardunak «Tori! Hauxe da onena kaka eginda zaudenean kiratsa nondik datorren jakingo ez bazenu bezala egiteko!» esatean jarri duen aurpegia. Polizia etxean piztu dudana ez zait gustagarriegi suertatu, baina ganbaran lasai-lasai nagoela pospolo zaharrokin sutu dudak bigarren hau goxoa da. Kea bota eta leihatilatik kanpora irtetea jarraitzen duen ibilbide bihurriari begira, joko aldrebes honetan nola demonio sartu ahal izan garen pentsatzen

dihardut. Nola arraio itsatsi ote zitzaion burmuinetan Jokini egitasmo zoro hura, eta zergatik ez ote nion nire laguntza ukatu. Hala egiteko adorea izan banu, Jokin ez zen bakarka ezer egitera ausartuko eta guk ez genuen ezertan zerikusirik izango.

«Alkandora urdin argidun emakumea negarrez», pentsatu dut. «Jooderrr! Ederra kapritxoa, Jokin!» Oker ez banago, martxoaren 19tik hona lehen aldiz egin dut barre. Gogotik egiten dut barre. Ezin dut sinetsi halakorik egin ahal izan dugunik. Guk! Sekula arriskutan sartu ez garen bi koitaduok! Barre egin dut berriz ere. Ederra da lasaiago sentitzea beldurrari aurre egin eta gero. Arraioa!

Jokinek eta biok ez genekien zenbaterainokoan sartu ginen egin genuena egin genuenean. Ezta hurrik eman ere! Hego haizeak bultzatu gintuen egin genuena egitera. Menturak, esango lukete pertsona helduek. Gu komikiak irakurtzen eta musika entzuten dugun mutil ameslari arrunt bi besterik ez gara. Ginen, akaso.

Egin egin genuela da kontua. Eta, ezagun da, ez dago egindakoari bizkarra emanda aurrera egiterik. Egingdakoari aurre egin behar zaio, eta egin behar izan diogu. Bai horixe! Elurra hasi zuen egun hartan, Bittorrek bere bulegora eraman izan ez bagintu, ez zen halakorik gertatuko. Baina gertatzen direnek gertatu behar dutelako gertatzen dira. Ez dago atzera bueltarik. Bittorrek, bestalde, ez du batere errurik izan. Gizon jatorra da Bittor. Sinets! Baina gertatu beharrekoak, esan dut lehenago ere, horrelaxe gertatzen dira. Hargatik edo honegatik, deabruak daki zergatik, hau guztia gertatu egin da.

Ganbaran ere hotz egiten du. Udaberri hau aspaldiko hotzena izan da. Urduritasunak eta hotzak gogor eta dardaran jarri naute. Josteko makina bat bezala. Ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta. Ezin naiz geldirik egon. Korapiloa dut eztarrian. Hemen goian. Beste zupada bat egin eta ozta-ozta irentsi dut kea.

Eta gero beste bat.

14 Lucky Strike hau goxo dago benetan. Azken zupadak eman bitartean, giltza bilatu dut. Amak esne kaxak, liba-potoak, olioak eta halakoak gordetzen dituen tokian utzi nuen. Hor nonbait. Kaiku, Ariel, Carbonell, Baqué... heeemen! Giltza arraroa da, handi-handia eta burdinazkoa. Antzinako horietakoa. Astuna. Zigarroa itzali eta leihatilatik bota dut. Goazen!

Bunbuiloak

Martxoaren 18a gainontzeko astelehen guztiak bezalaxe hasi zen. Zortziak eta laurdenetan, puntu-puntu azaldu zen Bittor bere ikastordurako. Aldean eguneroko gorbata kolorgetua eta ezpainetan irribarrea zintzilikaturik.

15

Bittor, Historia eta Arte irakaslea. Institutuan ezagutu ditugun maisuetatik atsegina. Ez du berba lar egiten gurekin, dena esatera, baina ikasgelan gehiengoaren arreta bereganatzeko gaitasuna duen irakasle bakarra da. Beharbada apal hitz egiten duelako. Esaten dizkigunak gure jakin-mina pizten dutelako agian. Hitzak aukeratzekoan beti asmatzen duelako akaso. Bai, horrexegatik izango da. Hitzak aukeratzekoan beti asmatzen delako. Edo, zergatik ez!, nire iritzia baino ez da.

—Gai zerrendari jarraituz —hasi zen besterik gabe—, Grezia klasikoari buruz dagokigu gaur hitz egitea. Baina nik, egutegian aurreraturik goazela-eta, beste zerbaitei pentsatu dut —isildu zen.

Geu ere isilik geratu ginen.

—Inpresionismoari buruz arituko gara —jarraitu zuen irribarretsu—. Baina ez niri galdetu zertaz ari

naizen. Tori, hartu fotokopiak... eta... Iker! Irakur ezazu ozen. Denok entzuteko moduan.

Ikerrek ez zuen denon ordeztzea beste aukerarik izan beste behin ere, bere kexu etsia purrustadaka agertu arren.

—Ez al zara gelako ordezkaria? —galdetu zion Bitto-
rrek—. Ba, ordezkariak zerbait jakitekotan, irakurtzen
jakin behar du ondo. Ea, has zaitez. «Paris...

16

—Pagis metropoli modegrno bihurtu zen XIX.
mendean zehar —ekin zion Ikerrek lotsaz, ege eta
egrre, agindutako zereginari—. XIX.aren lehen egr-
dian biztanle kopugua nabagrmn hazi zen, bikoiz-
tegaino, industgrializazioagen gogaldiak nekazagien
zati handi bat higiga egaman baitzuen lan bila. Pagis,
milo bat bizilagun baino gehiagokekin, ez zen mun-
duko higugagrren higibugu handiena bakagrrrik, edo-
zein unetan izugrrite batek eztanda egin zezakeen
munstgro kigastua ege bihugrtu baitzen. Metgro-
polia ez zetogrrren bat Napoleon III.ak bege kogoazio
egunean amestu zuen higi logatu eta esangugatsuage-
kin.

»Inpgresionistek higiko bizitzagen augrpegi ezbeardi-
nak magrgotu zituzten begaien koadgroetan. Estudioak
utzi eta kultugagen higibugu begrrian mugrgildu zigen
egabat. Pagisko bulebagrak, aisialdi gune begrriak,
tgren geltokietako altzaiguzko egaikin modegrnoak edo
higitagrrrek indagrbegrritzeko baino egiten ez zituz-
ten mendigako txango eta landako gosagiak magrgotu
zituzten».

Ito beharrean ari zen Iker. Arineketan hitzak ezin *harrapaturik*. Arnasa hartu eta ekin zion berriz ere, begiak paperetik aldendu barik eta lasaiago oraingoan.

—1874. ugrtean, Saloiko epaimahai akademikoak baztegrtugiko magrgolagiek, Cézannek eta Monetek haien artean, pentsamolde begetsuko beste batzuekin batega, begaien lanak jagrri zituzten ikusgai. Monetek *Inpgressioa, eguzki atega begrria* magrgoa jagrri zuen. Lan horrek hagrridura, hasegrrea eta bagrre algagak sogrtu zituen. Kazetagi batek kgkritika ankegrra idatzi zuen *Inpgressionisten egakusketa* izenbugupean. Horrela hagrtu zuen inpgressionismo izena mugimendu begrri horrek —arrapaladan bukatu zuen berriz ere Ikerrek.

Fotokopiaren oinean, bizardun baten argazkia.

Claude Monet (1840-1926), azpian.

—Ordezkarriak irakurri diguna ondo dago ideia bat egiteko —keinu egin zion Bittorrek Ikerri—. Baina irudimenaren onerako, zer deritzozue inpresionistek beraiek margotutako lanak begiztatzeari?

Eta mahai gainean pilaturiko liburuak banatu zituen gure artean.

Hala egin genuen txirrinak jo artekoa.

X X X

Jon Mirande institutuan ikasteak izan duen gauzarik txarrena bazkalordua atzeratzea izan da. Onena, bazkalostean itzuli beharrik eza. Hirurak aldera etxeratu, bazkaldu eta arratsalde osoa aurretik. Hala ere,

astelehen, asteazken eta ostiral arratsaldetan informatika ikastarora joan behar izaten dut, azken programen funtzionamendua ikastera. Aitak garrantzitsua dela dio, eta...

18

Seietan Info Centretik irtenda, trenan noiz pasatu zain nengoela bururatu zitzaidan patata frijituak eta txokolatea erostea ez legokeela txarto. Aitak emanikoak dira norbaiten etxera bisitan joaten naizenean beti zerbait eramatea bezalako kontseiluak. Aitarenak ziren dendariari eman nizkion zazpi euroak ere. Gozotegitik irten eta kale nagusian gora joan nintzen, banketxe eta denda artean, parkera iritsi arte. Parketik pasatzerakoan pentsatu nuen gogorra izan behar duela neguak zuhaizpean lo egiten duten eskaleentzat. Hotz nintzen eta euria ari zuen.

Parketik ezkerretara Ertzaintzaren polizia etxea, eta handik berriz ezkerretara, herriaren kanpoaldeko etxeak; batzuek oraindik «Erregimen zaharra» deitzen dietenak, langile immigranteentzat egindako etxeak. Han bizi da Jokin bere aita eta amarekin, hirurogei metro karraturen barruan. Ez da pisu handia, baina Jokinen anaia, Alex, Londresen dagoenetik, hogueina metro karratu dituzte. Azken pisua da eta hegoaldera ematen du, etxe argitsua, beraz. Jokinen amak, gainera, begi aparta du dekoraziorako. Bizileku atsegina da.

Jokinek, nire lagunik minenak, etxe hartan ematen ditu bere arratsalde gehienak. Jokinek ez du arkatza eta paperen bat baino gehiago behar, komiki eskuratu berri bat ez bada.

Eta nik? Nik ohitura dut ia arratsaldero Jokinenera joateko. Informatika ikastarotik ez noanetan, bazkaldutakoan joaten naiz. Egongelan eseri eta txor-txor-txor, bunbuiloak egin eta egin, afalordua iritsi bitartean.

Atarira heldu nintzenean, jaka bakeroaren azpian ezkutatu nituen patatak eta txokolatinak. Eduardo García, 5-A. Txirrina jo nuen.

—Hi al haiz, Nestor? —horrela deitzen nau Jokinek azken aspaldion. Komikietako Nestor Burma detektibearen antza hartzen ari omen naiz—. Esan!

—Neu nauk, bai. Zabal ezak atea behingoz!

Dagoeneko ez dira asko igogailurik gabeko etxeak, baina ni haietako batera joaten naiz astean lau-bost aldiz, eta bosgarren pisu bateraino igotzeko modu bakarra aldapan gora oinez joatea denean, gogotxartu, ozpindu egiten naiz.

—Eskailera madarikatu hauek lurperatu egingo naitek! —kexatu nintzen gora iritsi orduko.

—Ez duk hainbesterako, hi! —erantzun zidan Jokinek—. Zer daramak hor gordeta?

—To! Har ezak! Begi zorrotzekoa haiz, gero!

—Zer uste huan, ba, ez nuela ezer espero? Sar hadi. Baina ez ahaztu zapatilak erantztea. Ezagutzen duk ama!

Egongelara jo nuen zuzenean, arratsaldeko ordu gehienak eman ohi ditugun gelara. Sofan eserita, ezkerretara leihoa, eskuinean atea eta gertuago musika-ekipoa eta telebista, lore eta errebistero baten aldamenean. Hormak zuriak dira, denak, sofaren parekoa izan ezik, hura ardo botila kolorekoa baita: berdea. Horma hartan egurrezko

apalategi bat dago. Eta apaletan? Liburuak. Ni eserita nengoen sofa ardo kolorekoa da. Ezkerreko horman, edo hormaren aurreko aldean zehatzago esanda, metro erdiko altuera eta bi metro eskaseko zabalera duen egurrezko armairu ikusgarria, egur kolorekoa, noski, egur iluna.

—Zer duk nahiago —hasi zen barrez Jokin ezkaratetik—, Coca-Cola ala hil?

—Ez zekiat. Hiri zer iruditzen zaik? —barrez neuk ere—. Gaur, beharbada, hobe Coca-Cola, izotz zati bi eta limoi punta batekin!

20

Jokinek lurrean utzi zituen Coca-Cola latak eta txokolatinak. Belaun bat lurrean, armairua zabaldu zuen. Bere altxor preziatua; anaiak lehenago eta berak ondoren bilduriko komiki liburuak. Armairu bete. Alexen garaiko klasiko estatubatuar eta europarretatik hasi eta gure sasoiko japoniar manga galaktikoenetaraino. Era guztietakoak, alegia. Guk, Jokinek eta biok, baina batez ere Jokinek, nahiago ditugu antzinakoak. Izan, ez baitira Alexen garaikoak, aurreko mende erdialdetik aurrerakoak baizik.

Jokinen gurasoenean igaro izan ditudan arrats nagietan ezagutu ditut berak hain gogoko dituen supergizakiak: *Aquaman, Barbarella, Captain America, The Fantastic Four, Spiderman, Superman, Watchmen...*

Eta une konkretu honetan gogoan ez ditudan beste pilo bat.

Arratsalde horietako batean ezagutu nuen Batman ere, Jokinen betiko heroia. Saguzar jantziekiko ongile maskaratua. Zuzentasunaren zaindaria Gotham City

megalopolisean, Robin gaztearekin batean. Nik ez ditut lar gogoko superheroiak, baina Batman atsegina zait. Hala beharko!

Batman. Bruce Wayne gazte aberatsa egunez. Krimenaren aurkako saguzarra gauez.

Jokin, aitzakia txikiena duenero, dela inauteri, dela auskalo zer festa, amak jositako mozorroa eta aurpegikoa aldean jarri eta Batman bihurtzen da ordu batzuetarako. Ez du gutxi gozatzen.

—Sorpresa bat diat hiretzat —hasi zen—. Begira iezaioek honi.

—Zer da, ingelesez?

—Oso ondo, Nestor! Asmatu duk berriz ere —Jokin pozak txoratzen zegoen—. Alexek bidali zidak!

—Londresetik? —nik, harriturik.

—Bai. Lehengoan mezu bat bidali zidaan. Londresen bigarren eskuko komikiak saltzen dituzten denda mordoa omen zeudek. Irakurri ahala bidaliko zizkidak gorde ditzadan. Begira ezak hau —eskuetan zuen Batmanen komikia luzatu zidan—, 1969koa duk! —bekainak goratuz.

—Hala duk —egiaztatu nuen.

—Hogeita hiru bidali zizkidak. Dozena bat Batman eta hamar Superman! Ikaragarriak dituk! *The Dark Knight Returns* ere jatorrizko bertsiotan bidali zidak —hortzak ahotik atera beharrean egiten zuen irribarre. Eskua armairuan sartu eta beste bat eman zidan—. Hau hiretzat duk.

—*Nestor Burma!* —poztu nintzen—. *Brouillard au pont de Tolbiac.*

Nik ez dut marrazteko ohitura eta abilidadarik, baina gogoko dut komikiak irakurtzea. Detektibe, inspektore, espioi eta abarren istorioak ditut gustuko. *Alack Sinner, Bruno Brazil, Charlie Chan, Spirit, Sam Pezzo* eta *Victor Sackvill*, besteak beste. Alex eta Jokinen bildumari esker ezagutu ditut denak. Eta guztien artean gehien maite dudana Nestor Burma da. Tardi marrazkilari bikainak Malet idazlearen nobela poliziakoetatik komikietara eraman zuen detektibe entzutetsua.

22

—Jatorrizko bertsoia! —bekainak goratu nituen neuk ere—. Ez zekiat frantses askorik baina zoragarria duk. Zoragarria! Mila esker.

—Frantsesarena konpondu ezak amarekin eta eskerak emaizkiok Alexi —argitu zidan eta, gero, armairua arakatzeari ekin zion—. Begira. Begira! Ikusi hauek!

X X X

Ilundu arte egon ginen komikiak gainbegiratu, bunbuiloak egin, txokolatinak jan eta Coca-Colak edaten. Eztabaida betikoa zen: nik superheroiak ez direla sinesgarriak esaten nuen. Jokinek ea horrek inporta duen. Nik baietz, inporta duela.

—Bah... ez zekiat zergatik zaian sinesgarriago Burma Batman baino. Azken-azkenean, bikiak dituk.

—Hik, ordea, gogokoago duk Batman, ezta? —oldartu nintzaion—. Bah! Nik maiteago diat Burma. Azalduko diat zergatik. Argi azalduko diat.

—Izango ote haiz gauza!

—Batmanek borrokatzen dituen aurkariak ez dituk sinesgarriak. Joker, adibidez. Noiz entzun duk hik horrelako gaizkile baten berri?

—Bale. Baina... bost axola zaidak niri —esan zidan Batmanen komiki bat zabalduz.

—Gainera! —saiatu nintzen—, beste gauza bat esango diat.

—Akabo! —gogoko nuen Jokin sutzea.

—Nire ustez, superheroien istorioak komiki komertzialak baino ez dituk —ausartu nintzen.

—Kontuz, hi! Dendetan dagoen guztia saltzeko duk egina —mintzatu zitzaidan arrazoiz.

—Horretan hirekin nagok. Argitaratzen den dena saltzeko egin duk, baina batzuk besteak baino gehiago —heldu nion hariari—. Hik ondo dakianez, Batman, esaterako, National Comics-en eskariz sortu ziaten Kane-k eta Finger-ek. Zertarako? —puztu nintzen—. Supermani konpetentzia egiteko!

—Hala izan arren, pare-parean asmatu zitean.

—Badakik, kolore eta gustu guztiak ez dituk berdinak —baretu nuen, arratsaldea gehiegi ez berotzearren. Baina gero—. Dena den, irakurria diat libururen batean, gustuetarako onak eta txarrak daudela. Niri superheroien komiki gehienak txarrak iruditzen zaizkidak.

—Liburuak irakurtzeagatik gertatzen zaik hori! —etengo zuen Jokinek eztabaida orduko hartan ere, sarritan bezala.

X X X

Mari etxeratu arte ez diogu ordulariari begiratu ere egiten. Martxoaren 18ko arratsalde hartan ere ez ginen ohartu, baina zortzi eta erdiak ziren.

—Ez zineten arratsalde osoan horiei begira egongo? —galdetu zigun Marik egongelan sartzearekin batera.

—Bai. Txokolatina bat nahi duzu? Bakarra geratzen da —erantzun zion Jokinek.

—Zergatik ez? Zeuk ekarri dituzu, ezta? —galdetu zidan.

24 —Bai —lotsatu nintzen.

Mari klase ertaineko sendi bateko buru da, Edurekin batera. Eduardo ogi banatzailea da, saiatua eta bizio urrikoa. Maribelek Donibane Lohizuneko hotel batera joan behar izan zuen hamalau urterekin uda oso batean Parisko turistei ohea egitera, baina emakume argia da eta frantsesez ikasteko astia ere izan zuen. Ezkondu eta semeak koskortu zitzaizkiolarik, berarekin zerikusi gutxi zuten emakumeekin kafea hartzeaz aspertuta, akademia batean izena eman, titulua eskuratu eta frantsesezko eskolak ematen ditu orain arratsaldero.

—Eskerrik asko. Goxo dago txokolate hau —esanez abiatu zen sukaldera.

Afaltzeko ordua zen zegoeneko, etxera joateko ordua. Jaka bakeroa jantzi eta zapatilen bila joan nintzen.

—Bueno, Jokin, bihar arte. Aita aurki izango duk etxean eta ama afaria prestatzen zegok honezkero. Agur Mari!

—Bihar arte! —biek batera.

Eskaileretan behera Edurekin egin nuen topo, Jokinen aitarekin. Mela-mela ginda zetorren.

—*¿Qué tal habéis pasado la tarde?* —galdetu zidan bere ohiko irribarre zabalarekin.

—*Muy bien, hojeando los cómics.*

—*Ya me lo figuro. Desde que Alex le escribió, Jokin no hablaba más que de los dichosos tebeos* —jarraitu zuen Eduk—. *Llegaron ayer, pero como hasta hoy no acababais con los exámenes, pues no se los hemos dado.*

Barregura eragin zidan, baina irri egin nuen. Ondoren, esan nion:

—*Pues son de p... ¡de quedarse mudo! En versión original. ¡Superviejos!*

25

—*¡Cagoen seis! La de horas que vais a perder con los dibujos esos. ¡Si las pasarais estudiando! En fin, a ver qué ha puesto Mari para comer...*

—*Agur, Edu. Buenas noches.*

Eskaileretan behera jarraitu nuen.

—*Oye, tú, ¿no irás sin paraguas? ¡No veas cómo graniza!*
—hots egin zidan hatz luzeaz bere arropak erakutsiz—. *Toma este, ya se lo darás mañana a Jokin.*